29. Puede leerse el texto «El sentido en todos los sentidos» en el catálogo educativo de la 33 Bial de São Paulo (2018): http://imgs.fbsp.org.br/files/33bsp-publicacao_educativa.zip (en castellano: <https://ctxt.es/es/20190424/Culturas/25828/Rafael-S--M-Paniagua-arte-dinamicas-corporales-sentido-de-los-sentidos.htm>), o la obra multiplataforma *Atenta* (<https://atenta.weebly.com/autoescola-insular.html>), comisariada por Antonio Ballester Moreno para su proyecto *Sentido común* de la misma Bial.

calidad política de estos ejercicios atencionales, su carga emancipadora, reside precisamente en la confianza, el cuidado y la generosidad con la que nos disponemos a la experiencia personal y con la que observamos y escuchamos la experiencia de los otros, en un encuentro en igualdad donde ninguna percepción se señorea sobre las otras, sino que se llaman unas a otras enriqueciendo la experiencia compartida. Su fuerza política reside en el placer del juego estético de imaginar y liberar sentidos mediante los sentidos y no en el de constatar el significado que pueda haber sido prescrito, favoreciendo la recuperación de nuestra atención que las distintas economías se disputan y que nos permitiría enriquecer nuestra vida cotidiana. Descubrir un modo de estar y ser a través del arte es su mayor fuerza política y no la reducción del arte a la representación de un mensaje crítico, algún tipo de narrativa radical o de denuncia, por muy necesaria o legítima que sea. La atención nos coloca en situación de experimentación, de escucha creativa del mundo y nosotros mismos. La densidad de temporalidades y deseos que excita nos invita a un hacer poético y a una apertura radical que revivifica nuestro brillo existencial y nos orienta hacia una vida más feliz y plena.



SATURAZIOAREN KONTRA, PRESENTZIAREN ALDE

- Egunkaria paperean irakurtzea
- Etxeko giltzak hartu eta, ibiltzera ateratzea
- Liburu bat irakurtzea
- Musika jotzea, helbururik/partiturarik gabe
- Jatorduetan irratia itzaltzea
- Landareak zaintzea
- Naturarekin kontaktuan egotea
- Oheratzerakoan, mugikorra logelatik kanpo uztea
- Aspaldiko argazki album bat ikustea
- Ilunabarra ikustea, distrakziorik gabe
- Gauzak delegatzen jakitea
- Zuzeneko musika entzutea
- Harrikoa egitea
- Goizetan hamabost minutu hartzea liburu batekin, sofan
- Baso erdian geldi egotea
- Collageak egitea
- Igeri egitea
- Liburuetako azpimarrak jasotzea
- Ispiluan begiratzea
- Bakarrik gidatzea
- Aitarekin ogia egitea
- Nola nagoen eta ondo egoteko egunean zer egin dudan pentsatzeko bost minutu hartzea
- Erloju gabeko momentuak (Aralarren, uztaila amaieran, artaldeari begiratzea)
- Egunean idazteko momentu bat hartzea (bitakora bat)
- Aspertzeta
- Plan konkretu bat egitea (ez hamar baten barruan)
- Maite ditudanekin egotea
- Perretxikoen bila joatea
- Baloi batekin tokeak egiten egotea (ahal bada auzoan)
- Hitzaren Eskolara joatea (kafera bidean kide batek gehitutakoa ,)

2005-11-29/2006-02-16

I

*Tu cuerpo ya sin ti acostado,
las sábanas revueltas que no abrigan,
el oxígeno silbando su fracaso,
y todas las cosas que necesitabas,
iluminadas, cegadoras, papá.*

II

Zure gorputz zu barik etzana,
izara nahasiak inor ez berotuz,
porrota txistukatuz oxigenoa,
eta behar zenituzten gauzak oro
argiztatuak, itsugarriak, alferrak.
Aita. Baso bat ur. Crema. Pilulak.
Dena utzi berria. Auhena galdua.
Aún la besé caliente. Esne harri.

III

Gorputz bera barik etzana,
izara zuriak inor berotu gabe,
oxigenoak oihukatuz bere porrota
eta goiz argi berritan, itsugarriak
orain arte behar ziren gauzak oro.
Gizon bat gelan. Sendagarriak.
Erizaina sartzetako, hala zegoen.

IV

Gorputz, bera gabe, etzana,
izarekin estali dut, musu eman,
behar ez dituen gauzak bildu,
argiak itsututa, alfertuta.
Aitak esan dit Silviari deitzeko,
elkar agur dezagun laurok azkenengoz.

V

Zure gorputza, ama, zu gabe,
izarek estalita, aldamenka
paretarantz, ez irudituz hila.
Zure gauzak, ama, irratia,
oxigenoa, painuelo kutxa,
baso bat esne nik edan dudana.

Baso bat esne nik edan dudana,
leihoan freskatzera nork jarria.

HITZAREN ESKOLA
Bigarren saioko zenbait ideia

Zailena zer da? Errazena dirudiena: begiekin ikustea begi-bistan dagoena,
Goethe.

Poesia begi-bistakoa harrigarri bihurtzen duena da,
Chantal Maillard

Prozesu artistikoak izan daitezke urruntze modu bat.

-“Filmatzea nagoen lekuan egoteko modu dialektiko bat da”, Laida Lertxundi

“Entendiendo los procesos artísticos como una forma de distanciamiento, se trata de guardar algo de lo que connotan y retirar el resto. Así, aparecen no solo lo que connotan para una, sino una nueva forma que se abre en más direcciones que la personal. Más sentido que el que solo me incumbe a mí. Es la distancia para poder usar eso que es de la manera que se necesita, que se quiere. Se trata de encontrar la expresión pública de algo propio, de manera que no remita mi recuerdo, sino que tenga un valor de presente. Lo importante para mí es intentar desprender justamente ese exceso de lo vivido y dejarlo abierto, partir de un orden para dejarlo en movimiento. Ese desprenderse, ese distanciamiento, es alejarse, y alejarse no es sólo de lo que no se quiere, también es de lo que se quería equivocadamente, una se aleja del error de su propio deseo, porque en el proceso van apareciendo las características reales de eso que se deseaba; va apareciendo lo que se necesita”, Lorea Alfaro

Nor da idazten duena?

“El cuerpo que pisa la Luna, como el que descubre un bacilo o el que acuna a una anciana, no termina jamás en sí mismo”, Belen Gopegui (*Ella pisó la luna*)

“No soy yo la que escribe, es alguien que me habita. Yo soy la que bañ+a a mis hijas, prepara garbanzos, inventa mermeladas. La que trabaja, lee y habla con sus amigos, escucha a sus hermanas, la que siempre está cansada. Dentro de mÃ hay otra que no quiere dormir y escribe hasta la aurora y espera que pÃe el pÃjaro para cerrar el cuaderno y descansar. Esa que no soy yo imagina y poda los textos hasta dejarlos en nada, viaja a la semilla, se sorprende con sus propias ideas, baila con el ritmo de las palabras. Esa que no soy yo airea y ablanda las frases, las deja en remojo, busca estructuras fÃ©rtiles donde sembrar historias. La otra es la que poda las plantas y aprende sus nombres en latÃn, estudia los catÃlogos de semillas y es desordenada.. La que escribe, en cambio, es exigente, relee en la cama, tacha y comprende que, una vez mÃs, no lo ha logrado. El yo domÃstico hace puzzles. El que escribe encaja las piezas de una vida en la que nunca hay tiempo suficiente para mí”, Clara Obligado (Todo lo que crece)

Oroimenaren distantziak: memoria eta ahanztura

“Idazten duenak oroitzapenak birzikaltzen ditu, hondarrak bere egiten ditu, berriz bizitzen ditu, zuzendu egiten ditu. Ernetzeko puntuak dauden istorioak beren edukia eta nutrienteak askatzen dituztenak, beren nitrogeno partikularra, iragana idazketarako materia organiko bihurtuz”, Clara Obligado

“Memoria ez da barru prozesu psikologikoa soilik. Batak bestearekin elkarrizketan ari gara eta kontestu horretan oroitzen dugu, elkarroroketan. Oroimena norberaz gaindikoa eta intersubjektiboa da. Beraz, oroimenak ez nau ni neure iraganarekin lotzen bakarrik, oroimenak

besteekin lotzen gaitu iraganetik etorkizunarena zabaltzen den denbora subjetoan”, Joseba Sarrionandia

“Idazten dudanean, amorraren edo atsekabearen lirismoari aurre egin behar izaten diot batzuetan. Ez dut testu honetan oihu eta negar egin nahi, nire bizitzako une hartan inoiz, edo ia inoiz, egin ez nuen bezala. Ahalik eta gertuen egon nahi dut orduan nuen ezbehar aldaezinezko sententzietatik, zeinaren kontzientzia areagotzen baitzidaten farmazeutiko baten edozein galderak edo zunda zegoen azpil urez betearen ondoko ile-eskuilak. Zeren eta irudi eta hitz haiek gogoratzeak eragiten didan zirrarak ez baitu zerikusirik orduan sentitzen nuenarekin, idazkuntzarako emozio bat besterik ez baita. Edo beste era batera esanda: idazkuntzari bide ematen dion emozio bat, haren egiaren seinale dena”, Annie Ernaux (*Gertakizuna*)

“Fikzioa idaztea inoiz gertatu ez zena gogoratzea da; gogoratzen dena emozio batzuk dira, autobiografikoak ez, memoria kolektibo baten dauden emozioak baizik”. Siri Husvedt

“Oroimena soziala da beti. Oroitzapenik pertsonalenean ere parte garen gizarteko bizimodu material eta moralarekin dutela zerikusia”, Maurice Halbwachs

“DISTANTZIA. Brice Marden margolariak batzuetan makila luze batekin edo tintan busten duen adar batekin marrazten du, obrarengandik distantzia hartuz eta modu kontziente batean jabetuz pintzeladengan duen kontrolaz. Esaten du Mardenek: “Obrak obserbazioarekin hasten dira eta gero, erreakzio automatikoa dator: ondoren urrats bat atzera egiten dut, modu horretan marrazteko hainbat modu gainjartzen dira (...). Hori norbere burua analisiaren bitartez ezagutzearen kontrakoa da. Antz gehiago du norbere burua ahanzturaren bitartez ezagutzearekin, norbere buruarekin hainbeste ez erlazionatzen ikastearekin.

Nola ahaztu norbere buruataz? Erabili makila luze bat”, Lewis Hyde (*Brevario del olvido*)

“Nire lana oroimenaren eta ahanzturaren artean dagoen frikzio-espazio horretan dago, hor jostean da bizipena idazketarekin”, Conceição Evaristo (*Distraídos venceremos*).

“Nik sinesten dut gauzetan, baina ez markoan, eta poema marko bat da. Ikusarazi dezakezu. Eta jendeari ikusarazi diezaiokezu ez dela pentsamendu bat presentziaz ari, baizik eta poema bat, eta oraindik hobe izan daitekeela, edo momentu batean ez duzula aditz egokia topatzen. Hau ez da arimen arteko elkarketa purua, **elkarketa mediatua da**, denbora bereizietan ematen dena, eta, gainera, hitzek ere mediatzen dute. Bi horiek direlako poemaren materia: denbora eta hitza; horietaz egina dago, baina, era berean, traba bat ere badira: denborak herdoiltzen dituelako poemak, hitzak ere nahasmenera eramanez ditzakeelako pentsamenduak, eta irakurleak nik pentsatutakoaz bestela jaso ditzakeelako nire hitzak. Eta hori ikusaraztea izan daiteke modu bat esateko bestela ere izan zitekeela hau edo hura”, Angel Erro

”Esperientziaren poesiaren oinarri ez da inori gertatu zaionaz idaztea, besteak beste inori ez zaiolako poema bat gertatzen. Poema bat errealitatearen ordena estetikoari dagokio, eta beraz bizitzaren ordenetik kanpoko den ordena bati dagokion izaki bat da. Hortaz, inori ez zaio poema bat gertatzen, eta **inork ezin du gertatu zaionaz** idatzi”, Jaime Gil de Biedma (*Conversaciones con Jaime Gil de Biedma*).

Arreta + harridura (distantzia) + lana (bilaketa formal) > hiruretako bat gabe, erortzen da poema (Iñigo Astiz)

Mundu leunena_Ana Arsuaga

2022ko azaroak 27, BERRIA

Izenburu hori jarri nion *Jaikiera* diskoko abestietako bati. Kotsolamendu-abesti bat izatea nahi nuen, nolabait, niretzat behintzat bazen. Neure buruari kantatzen ote nion? Beste norbaiti? Berdin zion, samurtasun osoz egindako kantu bat sortu nahi nuen.

Abesti honi buruz idazten dut, bertan hitz egiten dudan «mundu leunenari» buruz idazteko. Nor bere baitan biltzearen eragiketan dagoen mundu horri buruz. Lole y Manuel taldeak *Río de mi Sevilla* abestian zioen: «Que es que en amores/ que es que en amores/ las caricias soñadas/ son las mejores». Baieztapen horren literaltasunean sartu gabe, bakoitzaren barne-mundu horren edertasuna da interesatzen zaidana. Edertasun hori, babesleku hori. Mundu horretan, ez dago desengainurik, zatarkeriarik, baldartasunik. Hortik sortzen dugu, agian, forma, sentipen nebulosa leun horiei errealtate sendo bat emanez. Abesti bat, koadro bat sortzen dugu, baina haren sendotasunak, ordea, konpromiso bat dakar; hor geratuko da, esanahiz betea, amaitua.

«Hemen nago. Hau naiz», diote abestiek. Zutabe hauek bezala, kantuak, interpretazio guztietara, besteen iritzietara irekitzen dira mundu leunenetik, guztion mundu amankomunera plazaratzean. «Handi geratu zaio eszenatokia». «Jada ez nau hainbeste emozionatzen». «Ez dut eboluziorik ikusten bere kontzertuan». «Niri abesti hau bestea baino gehiago gustatzen zait». «Ahots polita daukazu, baina nahiko musika arraroa egiten duzu, ezta?». «Lehenengo diskoan formula gehiago ikusten nuen; orain originalagoa da egiten duzuna».

Mundu leunenean ez dago epairik, guztia aldakorra da, gauzak direna dira, interpretaziorik gabe; loreak bezala, hor daude, ederrak, koloredunak, zimeldu egiten dira, eta berriro jaiotzen dira. Haien mundu eder bat sortzen dute, mundu erreala bat, zentzuz betea, logikaz betea; zure iritzia ez da garrantzitsua. Hori izango litzateke artearekin norberak sortu beharko lukeena; askea den lana, urteetan zehar, abestiz eginiko unibertso bat, berez erreala dena, bere izatea duena, bere zorroztasuna, bere legea, bere oparotasuna.


Artelanaren botereetako bat, gainera, hori da; zu, ikusle, entzule bezala ere, abesti horren bidez, mundu leun horretan sar zaitezkeela.

Eeh... vale.

¡¡Sigamos con la segunda teoría!!

2. EL AUGE DE LA ELECCIÓN RACIONAL

Algo que diferencia completamente la formación de las parejas actuales de las de las sociedades anteriores es que, en la sociedad de la Edad Moderna, las posibilidades de elección eran mucho más reducidas. Quién podía casarse con quién estaba severamente regulado por la clase (solo podías casarte con alguien de tu misma clase), por la raza (solo podías casarte con alguien del mismo entorno étnico), por el sexo (solo podías casarte con el sexo opuesto), o simplemente uno se casaba con quien podía, con alguien que conocía o con quien vivía cerca.



Hoy las limitaciones de clase, de raza y de sexo se han relajado y, además, con internet puedes ligar con TODO el mundo TODO EL TIEMPO en todo el globo terráqueo. Esta situación provoca que puedas imaginarte en todo momento con cualquier otro, real o imaginario, que sea mejor que con quien estás ahora.



A diferencia de lo que ocurría antes, no existe ninguna expectativa de que estés con la misma persona toda la vida, sino que puedes cambiar de pareja un montón de veces a lo largo de tu vida.

ESTAMOS SIMPLEMENTE OBLIGADOS A, EN MUCHA MAYOR MEDIDA, DEDICARNOS A ELEGIR.

Pero ¿cómo elegimos con quién vamos a estar? La socióloga Eva Illouz sostiene que una forma de escoger pareja es con la ayuda de la intuición, o sea, tomamos la decisión muy rápido, guiados por una especie de cualidades invisibles y acumuladas, antiguas experiencias y «sentimientos»; es una decisión que se toma más por una corazonada que con información fehaciente.*



Las decisiones basadas en la intuición no se pueden explicar de forma racional, simplemente son ASÍ.

Pero Illouz sostiene que esa forma de escoger pareja está en retroceso en favor de otra más racional de pensar la elección de pareja, cuando, por ejemplo, comparamos varias alternativas, pensamos en los pros y los contras, analizamos y nos servimos de consejos de profesionales, rellenamos preferencias de antemano en una página web de contactos o utilizamos métodos científicos.*




Pero ¿por qué la forma intuitiva de decidirse por alguien ha reculado en favor de la racional? Bueno, eso depende, por supuesto, de muchas cosas:

EL AMOR POR EL MÉTODO CIENTÍFICO AUMENTA EN TODOS LOS ASPECTOS DE LA SOCIEDAD:



LAS MODAS PSICOLÓGICAS QUE NOS INCITAN A ANALIZARNOS:



NUESTRA PREDILECCIÓN POR LOS EXPERTOS:



LA EXPANSIÓN DE LA SOCIEDAD DE CONSUMO HACE QUE NOS COMPORTEMOS COMO CONSUMIDORES RACIONALES Y QUE SAQUEMOS EL MÁXIMO PARTIDO INCLUSO EN NUESTRAS RELACIONES CON LOS DEMÁS

Illouz sostiene QUE LA MANERA RACIONAL DE TOMAR DECISIONES INHIBE LA FACULTAD DE SENTIR UN FUERTE COMPROMISO SENTIMENTAL.



* Illouz, p. 128

La evaluación y la comparación de opciones implican la descomposición del objeto, la persona o la situación en distintos elementos, así como el intento de analizar y ponderar esos atributos mediante un cotejo entre distintas opciones.

En consecuencia, el objeto es sometido a un proceso de fragmentación para ser evaluado en función de sus componentes discretos y separados, lo que **EMPAÑA LA CAPACIDAD DE EVALUACIÓN INTUITIVA.***

Illouz hace referencia, por ejemplo, a un estudio que demuestra que, cuando a las personas se las insta a **DESCRIBIR CON PALABRAS** cómo sabe la comida, tienden a pensar que esta no sabe tan bien. Los juicios verbales introspectivos socavan la impresión general positiva.*



* Illouz, p. 129

Illouz escribe:
 En ese sentido, una cultura de la elección con un grado elevado de verbalización podría disminuir considerablemente la capacidad de sentirse atraído hacia un vínculo emocional **SIN NINGÚN MOTIVO** y de adoptar un compromiso basado en la intuición.*

* Illouz, p. 129

Sorkuntza prozesua: Arreta + Harridura + Lana + Desioa

Ordutegia: 10.15 -11.15

Irudi poetikoak sortu, soinuekin batera.

LANA

Diziplina. Estructura. Errepikapena.

Bizitza eta lana ez dira desberdintzen.

Lanketa artistikoa, distantzia behar duen jarduera, edozein dela abiapuntua.

Zinemagintzan **3 idazketa momentu**: Idazketa, filmazioa, muntaia.

Pelikulan **ideia dago, helarazi nahi duzun hori**.

Lehenengo **gidoi** baten bitartez, horrekin batera **eszenaratzea** (Elementu, pertsonen mugimendua aukeratutako espazio horren barruan), filmazioan ematen dena, eta azkenik, muntaia.

Tarkovski: Pelikula mosaiko bat bezala.

Ideia bat dago oinarri.

Ideiak bizitza bera helarazten du. Bizitza harrapatu.

Mekanismoa ikusezina bihurtu.

Ideia/Irudi poetikoak. Tarkovski: misterioa. Errealitatean bertan jada dagoen hori.

Tarkovski. *Andrei Rublev*, 1966. Lehenengo sekuentzia. 7 minutu.

<http://www.youtube.com/watch?v=je75FDjcUP4>

ARRETA

Sorkuntza metodologiak. Prozesu bakoitzak bere metodologia aurkitu behar du.

Azken urteetan **GORPUTZA** sartzeko beharra. Gorputz osoarekin sortu, ez bakarrik buruarekin.

Buruko eskemak apurtzeko gura, misterio hori agertzeko.

Nola gorputzetik?

ARRETA LANDUZ. PRESENTZIA. HEMEN ORAIN NAGO. Arreta eskaini orainari.

“Gorputza jarri” (Marina Garcés)

BESTALDE, zineman funtsezkoa den **denboraren lanketa** egiten da. Bizitza

harrapatzeko, orainarekin bat egin. Denbora absolutua eskaintzen duten filmak.

Debozioaren zinema, Nathaniel Dorksy, 2003

Denbora absolutua/denbora Erlatiboa. Nola sartzen/harrapatzen da oraina, bizitza?
ADI EGON. ARRETA LANDUZ. DISPONIBILITATEA (**prestatasuna**)

*aldizkakotasuna (intermitentzia)

HARRIDURA

Arreta landu ezkerro, HEMEN ORAIN EGONDA, **HARRIDURA** sortzen da. Adibideak.

DESIOA (motorea)

Beti dago desioa, pultsioa, bultzatzen zaizuna aurrera egiteko. Céline Sciammak (Garretan dagoen emakumearen erretratua, 2019). Desio lista. Informazio lista. Bat egin biekin.
FILMINen: Zer da desioa: 18.06 - 20.40

Ariketa, gorputza. 11.00 - 11.45

- *Werckmeister Harmonie*, Bela Tar, 2020

<http://www.youtube.com/watch?v=GspehWFIWJM>

Eguzkia ez da mugitzen, dir dir.

Lurra bere buruari buelta eta eguzkiaren inguruan

Ilargia, lurraren inguruan.

Dena mugimenduan. Eta bat-batean Ilargia lurra eta eguzkiaren artean, EKLIPSEA.

Eklipseak aurkitu gaitu bat - batean. GELDU. ISIL. (...)

Berriz hasiko da mugimendua. Argia. Beroa.

Ariketa, Irakurketa 12.00 - 13.00

Iraupenari Poema, Peter Handke.

IRAUPENARI POEMA

Peter Handke

Gedicht an die Dauer, 1986
Euskaratzailea: Asier Sarasola

Aspaldi da iraupenaz idatzi nahi dudala,
baina ez saiakera bat, ez antzezlan bat, ezta istorio bat ere;
iraupenak poema bat idaztea behar du.
Poema batean nahi dut egin galde,
poema batean gogoratu,
poema batean bermatu eta betikotu
zer den iraupena.

Maiz sentitu izan dut iraupena,
udaberri hasieran Fontaine Sainte-Marien,
gaueko haizean Porte d'Auteuiletik gertu,
udako eguzkitan Karsten,
elkarrekin gaua igaro ostean egunsentian etxera noala.

Zer izan zen iraute hori?
Denbora tarte bat?
Neur zitekeen zer bait?
Ziurtasun bat?
Ez, iraupena sentipen bat zen,
sentipenetan iheskorrena,
askotan istant bat baino lasterrago joaten zen,
igarrezin, gobernaezin, helezin, neurgaitz.
Eta, hala ere, haren laguntzaz,
barrez begiratu niezaieke arerioei,
armagabetu ahalko nituzke,
gizon gaiztoa naizen iritzia
aldatuko litzateke,
eta honi eman bide:
"Bera ona da";
jainkorik balego,
haren semea izango nintzateke iraupen sentipenaren bitartean.

Atzo bertan, Salzburgoko Waagplatzen,
azoka egun amaigabe bateko jende olde eta harrabotsaren erdian,
ahots bat entzun nuen hiriaren bestaldetik
nire izena oihuka,
eta berehala jabetu nintzen
merkatuko postu batean ahaztu nuela
Errepikapena-ren izkribua,
eta ez nuela eraman posta bulegora;
atzera lasterka nindoala aditu nuen beste ahots lagun hura,
orain mende laurden
Grazeko auzo periferiko bateko gau isilean
kale huts zuzen luzearen beste puntatik zetorrena
zeru goietatik nire bila bezala,
eta orduantxe azaldu ahal izan nuen hitzez iraupenaren sentipena;
belarria zorroztea litzateke,
zerbaitez ohartzea,
norbaitek besarkatzea,
norbaitek atzematea.
Baina nork? Eguzki gehigarri batek,

haize freskagarri batek,
disonantzia oro afinatuta eta bateratuta legokeen
akorde isil eta leun batek.

“Egun batzuetarako da, urtetan irauten du”,
Goethe, mintzo objektiboaren heroi
eta maisu nirea,
zuzen zeunden beste behin ere;
iraupenak urteekin du zerikusia,
hamarkadekin, gure bizialdiarekin;
iraupena, bizitzaren sentipena berau.

Esan gabe doa, beharbada,
ez da iraupenik batere eratoritzen
eguneroko hondamenetatik,
ohiko ezbeharretatik,
berriz pizten diren borroketatik,
biktima kontaketatik.

Beti bezala, berandu datorren trenan;
berriz ere putzu bateko lokatzaz
zipriltintzen zaituen autoa;
kalean hatz batez keinuka ari zaizun
polizia biboteduna
—atzoko bibotegabearen leku berebean—;
urtez urte toki desberdin batean
lorategiko sasien artean agertzen den etsai-zakila;
goizero marmarka hasten zaizun auzokoen zakurra;
neguero azkura ematen dizuten umetako ospelak;
maite dituzunak galtzen dituzun amesgaizto beti berberak;
bi pertsonaren hatsaldi banaren artean
gertatzen den bat-bateko urruntze eternala;
mundua ezagutzeko egindako bidaien ondoren
sorterrira itzultzearen atsekabea;
behar baino lehenagoko milaka heriotza horiek gauean
lehen txori hotsa baino goizago;
eguneroko atentatu albistea irratian;
egunero autoren batek harrapatzen duen eskola umea;
ezezagunen eguneroko begirada gaiztoak.
Egiaz, ez da halakorik ari gertatzen
—ez da inoiz gertatuko, ez dio gertatzeari utziko sekula—,
ez duenez iraun indarrik,
ez iraupenaren berorik jariatzen,
ez iraupenaren kontsolamendurik ematen.

Derrigorrean egin behar da ñabardura:
“Istantaren mirari harrigarriek
ez dakarte iraute zorioneko,
luze eta lasaia”.

Hubert eta Felix, iragan udan
Turkiako kostaldean zehar egin genuen itsas bidaiari,
senadi txiki batean bota genuen aingura,
eta zodiaklean hurbildu ginen itsasertzera.
Aurreko bi asteetan bezala,
egun oskarbia zen, haize epel samar bat zebilen,
eta mendiz jo genuen hurrengo senadira.

Bidean, basoko salbia eta menda bildu nituen,
 eta horiexek erabili zituen Felixek,
 sukaldeko maisu xaloak,
 atzera itsasontzira itzulita otarraina maneatzeko.
 Beste senadi horretan almendrondo bat zegoen,
 oskol erdi irekiek aireko maskor ziruditen.
 Igo nintzen zuhaitzera, eta astindu adarrak,
 eta lurrera jausi zen
 zaparradaren karraskak,
 oraindik ere,
 brisa fresko kontinentalera itzulita nagoen honetan,
 belarrarian durundi egiten dit.
 Ondoren, igerian egin genuen ardo koloreko uretan hirurok,
 zoriotsu, are zorientasunagatik zertxobait asaldatuta ere.
 Itzuleran, lizar batzuetan gora txirikordatutako
 mahatsak bildu genituen,
 piku hori eta urdinkarak bildu
 liztor burrunbaren erdian,
 gure fruituez bekaiztu zen aker bat jazarri zitzaigun,
 bildu genituen umotu gabeko mingrana koroadunak,
 bertan egon izanaren intsignia,
 bildu genituen hazi ilarkara gogorrez beteriko
 algarrobo-leka luzexka eta beltzak,
 itzuli ginen atzera ur ertzera,
 bazkari berdingabe bat izan behar zen hari
 amaiera emango zion guztiaz
 beterik geneuzkala eskuak,
 eta luzaz egon ginen bertan,
 ontziaren belari beha,
 eta, ondoren, portuko babesean,
 beroaren dirdiran, txitxarraren karrankan,
 eliza bizantziarraren aurriak ikusi genituen,
 sarkofago liziarra
 —hondoa jotako txalupa gilaz gora,
 nekez bereizten dena gainerako harri formen artean—
 eta egungo nomada udatiarren
 ohe-arropa iluna
 zuhaitz baten adaburutik zintzilika,
 eta usaindu genuen belar onen lurrina,
 eta gu ginen turistentzat
 hil zituzten arkumeen hondakinen
 ustel kiratsa
 —apatxak, larrua, odola—,
 eta aditu iturburu baten murmurioa
 eta uraren inguruan zebiltzan
 turkiar liztortzar meheen burrunba.
 Goiz paregabea izan zen hura,
 eta zertaz ari zinen ulertu nuen,
 Hubert,
 konparazio eta mito zale porrokatua zu,
 hura agertoki "biblikoa" zela esan zenuenean;
 ez zen beharrezkoa eszenan agertzea
 profetak eta Rakel putzuaren alboan...
 Eszena bere horretan zen jokatua.
 Alabaina, nire hunkidura eta esker ona
 ez ziren garbiak:
 ezinegon batek, atsekabe batek,

malenkonia batek iluntzen zituen,
neu zeharo sorgortuz.
Mundutik
besteratu banindute bezala nengoen,
orduan galdu izan banu bezala
bizirik egoteko eskubidea.
Hiltzera banindoa bezala,
baina ez zorionez.
Gura nuen burua barku baten helizean sartu,
behinola gura izan nuen bezala
miradore haren beira buruarekin jo,
edertasunaz banantzeko,
lurraz, paradisuaz,
Sion hiriaz, maitasun iruzurtiaz.
Eta sentipen hark ez zuen etenik.
Aurrerakoan, egon gabe bezala egon nintzen,
malenkoniagatik begiak zabal-zabalik,
tiki-taka gaizto bat bihotzean,
bizi antz soil bat, lanerako txokoan
askotan legez, hitzen gainean makurtuta,
jatorrizko adieren gainean,
Eskiloren gizasemeen protohitzen gainean:
"ama-lur", "olatuen barre zenbakaitza",
"izar begi" esamolde greziarrak eraberritzen duen
gure "tximistargi" horren distira.
Ez, egun hartan argi neukan,
iraupenaren miraria nuen ments.
Istanta atxiki nezakeen, zalantzarik gabe,
baina, hala ere,
ez neukake haren gainean eskubiderik.
Etxera, pentsatu nuen, ezer ez etxera itzultzea bezala,
lorategi gajora itzultzea,
belar gaizto grisetara;
txikoria belarreten esporak (oraindik ere lore hondar zimelekin),
osinen sustrai korapilatu gero eta luzeagoak (tximeleta habiak)
eta azal zilarkara leuneko
ihintz tanta puztuak
tuisar hostoen zimurretan.
Lorategi hura utzi nuen
niretzako ez zen handitasun mediterraneo harengatik,
eta huts egin nituen
malba arrunt urdinkaren loraldia,
malba purpurena,
ezkaiaren ezpain antzeko lore zuriena,
intsusa mahatsen umotzea
(jaten dituzten zozo zalapartariz betea zuhaixka),
hur sortak euren idunekoekin
(tuka ari diren urtxintxaz betea zuhaixka),
errege-udareak
(hozkatzen dituzten erlez betea zuhaitza,
lerdea darien barraskiloz betea lurzorua),
bai eta intxaurrondoaren lehen hosto zimelen
udazken karraska ere.
Berrito izan nuen ziurtasun hura:
estasia beti da gehiegia;
iraupena, aldiz, doia.

Etxeko lorategia aipatzeak
ez du esan nahi
iraupena erdietsi daitekeenik
bizileku finko batekin,
azturaz.
Baiki, hainbat urtez
egunez egun ikasitakotik sortzen da,
baina ez dago lotuta leku jakin batean egoteari
eta ezagun ditugun bideei.
Ohiko bizitokian
sekula sentitu gabea nago iraupena
—“norbere baitara bilduta” horretan,
diotenez, “santu” izateko bide horretan—;
betiko bezeroen mahaian
sekula sentitu gabea nago iraupena
—diodan jatetxeekiko begirune osoz,
gorroto ditut
“erreserbatuta” txarteltxoak—;
sekula sentitu gabea nago iraupena
“plater gogokoena” jaten,
“abesti gogokoena” entzuten,
“nire bidea” ibiltzen.

Egiatan, iraupena urtez urteko abentura da,
eguneroko bizitzaren abentura,
ez ordea gogogabetasunaren abentura,
ezta inola ere astialdiko abentura (ekintzaz betea izan arren).

Orduan, zeri dago lotuta, lanari,
nekeari, zerbitzuari, beti prest egoteari?
Ez; hala balitz, arauren bat izango luke,
orduan, agian, xedapenen bat beharko luke,
eta ez poema bat.
Izan ere, sentitu izan dut bidaiatzen ere,
ametsetan, adi,
jolasean, beha,
kiroldegi batean, eliza batean,
pixatoki askotan.

Hurbildu nahi nuke, nolana ere,
iraupenaren funtsera;
iradoki nolabait, zor zaiona aitortu,
inarrosi,
etengabe bultzatzen bainau aurrera.
Baina orduan, etortzen zaidan aurrena
hitz solteen letania bat da:
iturri, elur berri, txolarre, bildots-mihi,
egunsenti, ilunabar, benda, kontsonantzia.

Inor ezin da fidatu iraupenaz:
ez mezarara
egunero doan elizkoia,
ez pazientzia handikoa, itxarrotearen artista bera,
ezta fidela ere,
beti, hutsik egin gabe egongo dena zeure alboan,
ezin daitezke bizi osoan ziur egon hartaz.
Nago

hura posible dela bakarrik
egiten den horretan
adi
egonez gero,
eta arduraz eginda, astiro,
hezur eta mami bete sosegu.

Zertan, baina,
behar nuke jarri arreta?
Biziei —haietako bati—
diedan maitasunean
zertuko da iraupena,
eta haiek didatenaren uste osoan
(irudipen hutsa izan arren).
Izan zer handirik ez da,
ez da ezer berezia, ez bakana, ez gizagaindikoa,
ez da gerra, ez ilargiratze bat,
ez aurkikuntza, ez mendeko obra,
ez gailurra jotzea, ez kamikazearen hegaldia:
milioika gizakirekin partekatzen dut,
nola auzokoarekin,
hala munduaren azken mugako biztanleekin,
hala han, non zera erkide honen bidez
munduaren erdigunea bera eratzen baita,
nola hemen, nire alboan.

Baiki, zera hori, urteen poderioz iraupen eratorriko dena,
funtsean, funsgabea da,
ez du hartaz hitz egiterik merezi,
bai ordea, idatziz finkatzea:
niretzat, funtsezkoena behar da izan.
Nire egiazko maitasuna behar du izan.
Eta neuk,
iraupen une horiek sortuko bazaizkit,
eta nire bisaia zurrunean arrastoa utziko badute,
eta nire bular hutsean bihotz bat sartuko badidate,
beharrezkoa dut, zeharo,
urtez urte
maitasuna *entseatzea*.

Dena delakoan ahalegin betean ari banaiz,
maite dudana eta funtsezkoa denez,
eta, horrela, iraungiko ez denez,
apika, sentitu ahalko ditut,
are ezustean soilik sentitu ere,
iraupen ikarak,
eta, betiere, hutsala den zerbaitetan,
hotsik egin gabe ate bat ixtean,
sagar bat kontu handiz zuritu bitartean,
atari bat jakinaren gainean zeharkatzean,
josteko hari izpia jasotzera makurtzean.

Iraupenaren poema maitasun poema bat da.
Bat-bateko maitemin bati buruz da,
eta haren segidan etorri ziren beste askori buruz.
Eta maitasun horrek
ez du iraupena aldietako ezeinetan,

baizik eta lehengo batean eta hurrengo batean,
maitasunak ematen duen denboraren beste zentzu horrekin,
lehengoa hurrengoa ere bazena,
eta hurrengoa lehengoa ere bai.
Bat ginateke jada
bat egin baino lehen;
bat izaten jarraituko genuke
bat egin hurren ere,
eta, horrela, urteak eta urteak egingo genituzke,
aldakaz aldaka,
hatsaldiz hatsaldi,
elkarren ondoan.
Gaztaina koloreko ileak gorritu zitzaizkizun,
eta hori bihurtu.
Orbanak gehiagotu zitzaizkizun,
eta ez nizkizun inon topatzen.
Zure ahotsak dar-dar egin zuen,
irmo jarri zen, xuxurla egin zuen, inarrosi egin zen,
kanta bihurtua zen azkenerako,
hots bakarra gauaren neurrigabearen,
eta isildu egin zen nire ondoan.
Zure ile lastuak kiribildu egin ziren,
zure begi argiak ilundu,
zure hortz handiak txiki bihurtu,
zure ezpainen azal leunean
filigrana bat zen marraztu,
zure kokots beti leunean
lehen ez zegoen elutxa bat nuen haztatu,
eta gure gorputzek, elkarri min egin ordez,
bat egin zuten,
eta, bitartean, logelako horman,
kaletik sartzen zen argian,
Europako lorategietako zuhaixken itzalak mugitzen ziren,
Amerikako zuhaitzen itzalak,
han eta hemengo hegazti gautarren itzalak.
Baina iraupena
ez dago sexu amodiora mugatuta.
Hel daiteke zure haurrari diozun maitasunean,
ez, derrigorrean, mainatzean,
lastanetan, muxuetan,
baizik, beste behin ere, garrantzirik gabekoa soilik dela bide,
eta ez da bide hoberik besteengana!
Ongintza da,
bere hobe beharrez,
haurra bakean uztea:
haurrarekin iraupena
bizi zenezake
adi zauden aldietan,
orain hamar urte
haur neurriko beroki urdin kaputxaduna
kakoan esekitzen zenuen
keinu arretatsu berarekin,
orain heldu neurriko larruzko jaka marroia
beste kako batean, hiri zeharo desberdin batean,
esekitzen duzun unean;
haurrarekin iraupena
etor dakizuke,

zeregin ustez baliagarri batean
logelan sartuta ordu mordoa daramazula,
guztia ordenan egoteko falta den hori,
etxeko atea ireki den hotsa,
itzuleraren seinale,
isiltasunean entzuten duzun bakoitzean,
une horretan, zuretzat,
hosberatan hosberena zaren horrentzat,
ari zaren horretan adi zaudela,
musikaririk ederrena entzun bazenu bezala da.
Zure ondorengoarekin iraupena,
agian, ikusezin bihurtzen zarenean
sentitzen duzu bizien:
ezkutuan hari beha egoten zarenean eguneroko bidean,
hartu duen autobusa aurreratzen duzunean,
autobusak ostera zu aitzinatzean,
leihoan, ezezagunen hurrenkeran,
aurpegi ezagun bakarra ikusteko,
edo, besterik gabe, urrutian irudikatzen duzunean,
besteen artean, besteen babesean,
besteen begirunearekin,
metroko jendetzan.

Iraupen une horietarako,
poemak, bere kabuz, aditz aparteko bat darabil:
izarratzen zaituzte.

Baina urteak igaro eta zeure buruarekin adiskidetzuta egoteak ere
eman diezazuke iraupena.
Begi-tara so egin ahal badiot neure buruari,
bakean joan naiteke.
Izan nintzen haurraz
pentsatu badezaket,
jada berarekin topo egin dezakedalako da.
Nire akatsekin (ez nahitakoekin)
onbera izateak;
bidegabekeria bat egin zaidanean
nire artekoetan azkena banintz bezala
neure burua lasaitzeak;
hitz zehatza une egokian topatzeagatik
garaipena ospatuz
neure bularra kolpatzeak;
eta nire logelako anabasa zeharkatzean "bai" orro egiteak
ardo finenaren botila batek
adina gaztetu nazake
(bestelako ajeeekin).

Bitxia da, halaber, iraupenaren sentipena,
zenbait objektu usatu direnean kausa,
zenbat eta ezdeusago, orduan eta hunkigarriago:
koilara hura,
etxe-aldaketa guztietan lagun;
toalla hura,
zenbat bainugelatan ez da egon zintzilirik;
teontzia eta lezkazko aulkia,
urtetan sotoren batean zokoratuta
edo beste nonbait gordeta,

eta orain, azkenean, beren tokian berriro,
baiki, behinola egondakoaz bestelako batean,
baina, hala ere, haienean.

Eta azkenik:
dohatsu hura, iraupenaren lekuak dituena;
erbestean bizilekua hartuta ere,
eta sorterrira itzultzeko aurreikuspenik gabe,
ez da gehiago izango deserriratu bat.

Eta, orobat, iraupenaren lekuak distiragabeak izan ohi dira,
askotan, ez dira inongo mapatan ageri,
edo ez dute izenik bat ere.

Ezein kanpotarrek ez du ezagutzen Griffengo lakua,
eta izan liteke nire herriko haur batzuek
gaur egun ez jakitea
inguruetan laku bat dagoenik,
gerrartean
uretan nenufarrak ageri ziren postalak zeuzkana
"Griffen, Griffengo lakuaren ondoan" legendarekin.
Eta, hala ere, urmael lokaztu hori,
laster guztiz desagertuko dena
—hori dute buruan autobidearen ibilbidearen plangintzan dihardutenek—,
niretzat iraupenaren leku bikain bat da.
Umetan, aitonarekin joaten nintzen hara
bazkatarako belarra moztera.
Lakua, asfaltozko errepidearen beste aldean,
are gerora legarrezko "errepide zaharra" izandakotik haratago ere,
gordeta zegoen, justu, mendi baten oinetara,
eta mendi hark Erdi Aroko gudaldi bati izena eman zion,
"Wallerbergeko gudaldia",
eta mendi hartan ibiltzea nuen ohitura,
XIV. mende hartako
arma arrasto herdoilduen bila.
Ertzetik aldentzen ginen
gurean *schinake* esaten zaion txalupa ia laukia
kizkiarekin gobernatuz,
eta kanaberadia zeharkatzen genuen,
errentan genuen saila zegoen lekuraino.
Han izaten zen landare urtar mamitsu eta berdexka hura,
"hasch", behien bazka gogokoenetako bat,
eta esnearentzako bizigarri aparta.
Oraintxe bertan, nire alboan, idazmahaian,
aspaldi ihartu zen zurtoin bat dut,
oso bestelako laku batean bildua,
Doberdob lakuan, Triestetik hurbil,
Karsteko laku bakarrean.
Hatzen artean krak egiten du,
eta berriro entzuten ditut lehen euri tantak
gure txalupara erortzen.
Marraduna da, edo lizun orbanak besterik ez dira,
eta puskatzen dudanean
barnetik hauts lainotxo bat irteten da,
usain gozokoa, edozein lastorena baino gozagoa,
eta berriro entzuten dut idien hortzen karraska.
Belar bilketak udan izaten ziren, egunsentian,

igitaiarekin,
eta aldi haietako batean,
agurearen emazteak, etxean, gaixorik,
isilik, azken hatsa eman zuen.
Denborak aurrera egin ahala, ura sartzen hasi zen txalupan,
lohi beltz bat zirrikituetatik barrena, izainekin,
eta agureak haurraren hanketan eta beretan jartzen zituen,
nekazari hanka haietan, hanka zurbil haietan,
zioenez, ona zelako:
zizare itxurako animalia txiki haiek,
ziztada zorrotz baten antzeko hozkada irmo batez
larruazalera itsatsita,
nabarmen puzten ikusi,
eta barea baino handiago egin arte
itxaron behar zen.
Gaur egun, lakutik isurtzen den erreka bideratuta dago,
eta ur haietatik geratzen dena
ihiek eta sastrakek ezkututzen dute.
Familiako txalupa beste ertzerara igaro da, mugaz haraindi,
Lago di Doberdò, bertakoek berezko eslovenieraz *Doberdibsko jezero* diotenera,
eta haltz makila bat da orain arrauna,
eta zomorro hurrupatzaileak egon beharrean, kurlintak daude.
Halere, iraupenaren isiltasun gozo bera da
nagusi bi lakuetan,
eta ahal dudan guztietan egiten dut erromesaldia hara.
Lakuon isiltasunean
badakit zertan ari naizen,
eta, zertan ari naizen badakidanez,
badakit nor naizen.
Haien ertzetan egoten naiz,
begiak eta belarriak erne,
arratsa etorri arte.
Urtxorien zalapartak
isiltasuna zabaldu egiten du:
hartatik ikasten dut.
Sastraka artean, lokatzean sakon inprimatuta,
apatx arrastoak.
Egun batean, Griffengo lakuari diodan maitasunagatik,
ibili neketsua egin nuen hartatik isurtzen den errekan gora
—ez baitago lakua zeharkatzeko beste modurik—,
eta ibilian ur garden haiek uhertu nituen,
hondoko hareak harrotu,
eta mikak dir-dir egiten zidan
gerri inguruan,
pikor zilarkara bat, apika,
Itsaso Beltzera bidean.

Agortzen ari den laku hori ez bezala,
Parisko mapa guztietan ageri da Porte d’Auteuil:
hiriko mendebaldeko ateetako bat delako du garrantzia,
baina, urteekin, niretzat hori baino gehiago bilakatu da.
Hiriko kale askok, ekialdetik, iparraldetik eta hegoaldetik,
ganga-formako plaza zabal hartan egiten du bat,
eta handik irtenda,
Boulogne, Saint Cloud eta Versailles datoz,
eta, aurrerago, Normandia eta itsasoa.
Han, ibilgailuen motor burrunba etengabe

—baita terminal txikiko tren zaharren triki-traka ere—,
aldirietako zeruaren pean,
aieru beti berri bat etortzen da,
baina plazaren atzean, lehenik,
Bois de Boulogne ikusten da,
bertako pinu, zedro eta astigar zuri altuak,
Porte d’Auteuil beste ezer ez balitz bezala;
metropoliaren barrenetik oihan tropikalera doan pasabide bat.
Atzerriko plaza hori,
Griffengo lakua bezala,
nire santutegi laikoa bihurtu da,
eta lantzean behin hara bidean jartzen naiz,
iraupenaren mirakulua suertatzea espero baitut
(gertatuko den ziurtasunik batere gabe, noski).

Printzeen Parkearen
eta hipodromoaren inguruetan,
Auteuilgo Atea tasun paristarrik batere gabea da;
edozein periferiako Epsom Tavern,
kirol-dendak bata bestearen atzetik
eta eraikin gotor, itzel eta ilunak,
izan liteke Milan.
Plaza hori
-iraupena gertatzeko baldintza ote?-
munduko edozein lekuren erakusgarri ezin hobea da.
Gauetz, urak
hustubidetik doazela,
astigar zurien fruituak dilindan
eta binorri adarrak dantzan dauzka haizeak;
gauaren belztasunean txandaka,
semaforoek kolore aldaketa etengabea
(jokatzez sekula nekatuko ez naizen
makina txanponjalea),
eta, aineratu beharrean bezala,
zitzu bizian autoak eta autobusak,
beren argi frantses horiekin,
oinezkoen azpian asfaltoa dardararaziz.
Leku honetan lehen aldiz
hogeita hamar urterekin egon nintzen arren,
irudipena dut gaztaro osoa bertan igaro nuela,
are orain eta hemen gertatzen ari dela ere,
eta eragozpenak eragozpen
—bihotzekoaren beldurrez plazan egiten ditudan nora gabeko ibiliak—;
jai nazionalaren eguneko tankeen desfilea,
eta errepideko ildaskak eta tarratatuak;
futbolzale mozkorrek whisky botilari zupaka,
autotik salto egin
eta aurkako taldeko bat
pistolaz destatu zuen gidari hura-
ezek ezin dezake ahuldu iraupenaren leku hartan dudak konfiantza.
Iraupenaren hatsa sarri sentitzen jarraitzea dut desio.

Niretzat, ordea, iraupenaren leku kutuna
Fontaine Sainte-Marie da,
periferiako Clamart eta Meudon arteko basoan.
Basoaren soilgune batean dago,
bidegurutze batek eratzen duen hiruki formako belardian.

Lorategidun jatetxe txiki bat dago bide ertzean;
 kanpotik, gorriz margotutako harrizko etxola,
 barruan, leku atsegina,
 eta handik, uda eta negu, iturria,
 soilgunea eta zeruertzerantz doan
 lurbidea ikusten dira.
 Galdetuko balidate non den munduaren erdigunea,
 Fontaine Sainte-Marie izendatuko nuke.
 Izan ere, iturria berau, erdi-erdian dago;
 beti hartzen nuen atsedean bertan,
 Clamartetik
 basoan barrena
 Meudon mugakidera
 umea eskolatik hartzera egiten nuen bidean,
 eta orain ibilbide bera
 egiten dut ahal dudanero.
 Paris hurbiletik doa Sena,
 erretenetik doaz urak,
 baina gainerakoan kilometro askoan deus ez.
 Antzinako errekek lurpean isurtzen dira,
 porlanez daude estalita.
 Fontaine Sainte-Marien
 topatu nuen metropoliko iturburu bakarra,
 erreka natural bizi bakarra.
 Harako bidea beti
 oinez egiten dut,
 inoiz ez autoz,
 eta basoaren atarian jada
 erakarpen bat senti dezaket;
 hausnar arrunten haria eten,
 eta nire pentsamendua munduari buruzko gogoeta bihurtzen da.
 Nire baitako hitz-aspertuaren ordezt,
 ahots ugariaren sufrikarioaren ordezt,
 arrazoiketa iristen da,
 isiltasun askatzaile gisako bat,
 eta hartatik, hala ere, ondoren, behin lekura iritsita,
 pentsamendu bat, nire pentsamenduetan gorena
 datorkit ozen:
 gorde salbu, gorde salbu,
 Zirrara leun bezain bortitz horrekin,
 begiak borobildu egiten zaizkit,
 krakateko bat aditzen dut belarri barnean,
 eta basoko soilgunean
 eskerrak ematen ditut bertan egoteagatik.
 Doberman beltz hanka okerrak
 patxadaz usna diezazkidake belaunpeak.
 Batzuetan, taberna itxita topatzen dut;
 zein urtarotan noan, iturria lehor
 —agian, laster hormigoiz estaliko dute betiko—;
 baina orain horrek ez dio axola:
 baiki, hau da iraupenaren lekua,
 lehen eta orain, zurian beltz jartzen dudana,
 Lurrarekin bat, udaberri hasieran,
 intxaurrondoak loretan diren honetan,
 gizateriarekin bat, albo baten luzera osoan horma duen lurbidetik
 haur-kotxea zeruertzerantz
 bultzatzen duen emakumearen irudian.

Parisen izan nintzen azken aldian, Arthur,
berriro ere Fontaine Sainte-Mariera
elkarrekin itzultzeko geratu ginen.
Hala ere, aldi hartan, bertan
ordubete pasatxo generamala,
adostu genuena beharrean,
bidea bakarrik egiteko bulkada etorri zitzaidan,
eta etxera bidali zintudan.

Ulertu zenuen

—ofiziozko itzultzaile bainoago bihotzezkoa zu,
gogaide, testuaren antzezle, adiskide—
azalpenik behar izan gabe, eta ospa egin zenuen
barrez eta imintzioka hirirako bidetik,
zure Porte des Lilasera, ekialdeko atera, amañi-lilien atera,
beharbada, neu bezala, bakarrik, iraupenaren konpainian
egoteko irrikatan zeundelako.

Bai, Fontaine Sainte-Marie, edo Porte des Lilas,
maite zaituztegu.

Hala ere, iraupenaren zirraren,
zirrara gehigarri horren xerka bidaiatzea,
urteroko erromesaldi eta erromeria,
oraindik ere beharrezko al dut?
Akordatu zaitez bekaitzeko ziztada haiez,
bidaztiak ikusten zenituenean
zure hirian barna
—artzapezpikutzaren denboratatik arimagabeak ziren kaleetan—
(txikia izan ohi zen) hatuarekin geltokirantz,
eta bularreko zimikoaz,
zeure burua arratsaldeko hegazkinean jesarrita irudikatzen zenuenean,
mendebalderantz, lorratz kizkurra utziz zeruan.
Jada ez dut iraupenaren lekuetara
munduan zehar bidaiatzeko premiarik.
Adia galduta ere,
denbora hartzen dudanean
bonbilla bat poliki hariztatzeko,
harri bat haztatzeko,
eskuaz keinu leun bat egiteko,
menturaz, Griffengo lakuko isiltasun bizia
jabetzen da nitaz;
zalgurdiak hara-hona dabiltzan Residenzplatzera heltzen da ia-ia
Porte d’Auteuileko zalaparta eta jendetza;
zutik diraut
Fontaine Sainte-Marieko triangeluaren alboan.
Neure burua hezi dut
iraupena itxaroteran,
erromesaldian indarrak xahutzeari utzita.

Etxean geratze hutsa ez da aski;
irten egin behar naiz iraupenarekin topo egiteko.
Maite dudana horri bidera irteteak,
edo haren xerka abiatzeak,
areago eta luzaroago nau arnasberritzen
edozein iraupen lasterketak baino.
Etxera bidean denari
etortzen zaio iraupena
etxean jesarrita dagoenari bainoago,

Odiseori, kinka larrian zela,
Pallas Atena jainkosa laguntzera agertu zitzaion bezala.
Etxean ere usu biltzen da iraupena nirekin,
lorategian hara-hona nabilenean,
elurpean, euritan, eguzkitara, ekaitza dagoenean,
ezpelari so nagoenean, nola dantzarazten duen haizeak,
armiarma sarek beteriko haginari,
eta, Zoharraren arabera,
"ahotsaren gidari diren zeruko txoriei",
edo gelaren barnean,
lan-mahai esaten dioten horretan jartzen naizenean,
ez ordea nire baitara bilduta nagoenean testuren batekin lanean,
baizik, orduan ere, egiazki hutsala den zerbaitetan;
aulkia apur bat atzeratzean,
tiraderari soslai begiratzean,
apalean urtez urte ugariagoa den betaurreko sortari
soslai begiratzean,
kanpoaldean, katuek elur lodian eta
belar luzetan harilkatu dituzten oinatzei
soslai begiratzean,
lautada zeharkatzen duen trena eta haren txistu hotsa,
haizea nondik datorren,
alde batetik edo bestetik entzutean.

Iraupen, nire atsedena.
Iraupen, atsedenerako leku nirea.

Iraupenaren bulkada iragankor,
leku esangarri batez biltzen nauzu,
eta azalpenetik beretik beste leku bat eratortzen da.

Egia sekula betiko:
iraupena ez da bizipen kolektibo bat.
Ez da herrigintza.
Eta, hala ere,
iraupenaren graziazko egoeran,
azken batean ez nago erabat bakarrik.
Iraupena da nire ordaina,
haren bidez *noa* eta *naiz*.
Iraupenak bihotz emanda,
banaiz
Griffengo lakuan ni baino lehenago egon ziren haiek ere,
Porte d'Auteuil nire ondoren inguratuko duten horiek ere,
Fontaine Sainte-Mariera bidelagun izan ditudan guztiak ere.
Iraupenean bermatuta,
nik, egun bakarreko izaki,
bizkar gain daramatzat
nire aurrekoak eta nire ondorengoak,
altxatzen nauen zama bat.
Horregatik, esan liteke iraupena dohain bat dela,
ez al da egia haren irudiek eta hotsek
distira eta doinu aproposak dituztela?
Arratsaldeko euria goizeko putzuen gainean;
teontzira leun erortzen den elurra;
Salzach ibaia zeharkatzen duen autobidean
zitzu bizian doazen kamioien errotulu beti berdinak.

Iraupenaren bulkadak berak
berez ematen dio ahotsa poema bati,
hitzik gabeko erritmo bat,
eta horrekin,
osagai askatzaile,
azkenean ongia garaile aterako den
epopeia bat hasten zait taupaka zainetan.

Zauri bat ixten da
iraupenaren bedeinkapenarekin,
artean nuenik ere
ez nekiena.

Iraupenaren bultzada
izan dut ments.
Iraupena sentitu ez duena
ez da bizi izan.

Iraupenak ez nau bereganatzen,
dagokidanera narama.
Eguneroko gertakizunen argietatik
egiten dut ihes iraupenaren gordeleku badaezpadakora.

Iraupena gertatzen da
dagoeneko haurra ez den
—agian dagoeneko zaharra den—
haurraren
haurraren begiak ezagutzen ditudanean.

Iraupena ez datza antzinateko harri
higagaitzean,
iragankorra da,
moldagarria.

Iraupen malkoak, hain gutxitan!
Poz malkoak.

Igarri,
eskatu eta erregutu ezineko
iraupen ikarak:
osatu duzue
poema.

*Ezein irudik ez du ordezkaturiko iraupenaren intuizioa,
baina objektu mota oso desberdinen irudi desberdin askok,
beren ekinak bat datozenez, kontzientzia bideratu dezakete
nolabaiteko intuizio bat agerikoa den puntu zehatzera.*

Henri Bergson

Armiarma.eus, 2021